

IRUNBERRI / Liburu bizidunak

Hainbat alditan bisitatu eta gero, Irunberriko udaletxean ikusgai zegoen erakusketarekin txoratuta, ikastolan antzeko bat egitea pentsatu genuen. Hala, Eguberrietan gogor lan egin ondoren, urtarrilaren 14tik otsailaren 29ra arte ikus daitezkeen liburu fantastikoak egin genituen. Ikastolako liburutegian daude ikusgai, 9.00etan, 13.00etan edo 17.00etan.

Ikastola eta herria liburu fantastikoz bete zaigu urte hasiera honetan. Erakusketa bat izan da herrian eta hura berdindu nahian beste bat antolatu dugu ikastolan. Horren harira, liburuei buruzko datuak emanen dizkizuegu jarraian.

Liburua idatzitako, zuriz inprimatutako edota irudiz hornitutako orrialdeen sorta bat da, paperez, pergaminoz edo beste material batzuez egindakoa. Normalean azal pare batek babesten du.

1501 baino lehen egindakoak inkunable izena hartzen dute. Gaur egun, formato elektronikoa baldin badauka e-book izena hartzen du ingelesez. Tartean ezin dugu ahaztu Johannes Gutenberg asmatzaile alemaniarra. Inprinta asmatu eta orain dela gutxi arte liburuaren inprimaketa aldatu zuena.

Liburutegiak dira objektu hauek irakurgai ditugun tokiak eta liburu dendak salgai daudenak. Aurreko hau serio gaudenean zeren eta guk hainbat lekuetan irakurri eta idazten ditugu.

Aitzinean, ez dugu ahaztu behar lehengo idatziak, buztina eta harriaren gainean eratzen zirela. Geroago, garatuz joan zen eta papiroarekin egiten hasi ziren. Gaur egun paperarekin egiten ditugu eta irakurri dugun bezala e-book etan, liburuek, itxura elektronikoa hartzen dute.

Mota askotakoak ditugu: liburuak ikasteko, irakurtzeko soilik, gauzak ezagutzeko. Eta hauen erabilera anitza da. Badaude ere sukaldaritzakoak, nobelak, ipuintxoak, albumak, olerkiak diren liburuak.

Orain badakizuela zer diren liburuak Irunberriko erakusketa bati buruzko bitxikeriak kontatuko dizkizuet. Abenduan hasi eta urtarrilaren erdialderaino izan genuen herriko udaletxean liburu fantastikoen erakusketa, Liburuen inguruko artelan txiki hauek Carmen Domench katalanak egin, prestatu eta apaindu eta zaindutakoa da. Badakigu ere bere lagun askoren laguntza jaso duela. 73 liburu inguru ditu, zoragarriak. Istoriok eta ipuinez beterikoak abenturazko, amodiozko, beldurrezko, misteriozko.. erakusketa da. Mota askotako liburuak: nobelak, antzerkiak, olerkiak. Begi bistaz liburuaren irakurketan murgiltzeko, idazleek esan nahi duena jasotzeko, eta irakurleek irakurritakoa ulertzeko aukera ematen dute.

Mintx sagutxoak. Aitzin Aroa gogoratuz.

Orain dela gutxi, Euskal Herriko herri txiki batean ikastola bat zegoen baina zoritxarrez ikasle guztiek ez zuten irakurtzen. Horren orde, bazen denok egiten zuten gauza bat, hau da, guzti guztiek egiten zuten gauza bat gaztelaniaz hitz

egitea zen. Irakasleek denetarik probatu zuten ikasleek euskaraz egin zezaten, baina, tamalez, ez zuten ezer lortu.

Ez duzuela ulertzen zer gertatzen zen ikastola hartan? Hara hemen adibidez astelehenean gertatutakoa:

-Kaixo ikasle maiteak! Gaur euskaraz irakurtzen duenak zinemarako lau sarrera eta joko polit bat lortuko du!- esan zuen irakasleak gela hastear zegoela.

Honatx topatu zuen erantzuna:

- ¡Qué mierda! -batek

- Yo ya tengo entradas -besteak.

-¿Me invitas?- gadetu zuten

-¿Y a mí? -esan zuen entzuten ari zen ikasleak.

Sorpresa bikaina

Gisa horretako giroa egin zen urte mordo betean ikastola hartan. Irakasleak gauza berriak asmatzen saiatu ziren baina ez zuten lortu.

Orduan, bada, dagoeneko ia etsituta zeudela, psikologa bat deitu zuten irakasleek eta ondokoa adierazi zien emakumeak:

-Kaixo, ni Maitane naiz. Nik oso lagun on bat daukat eta sagutxo bat da.

- ¡Yo también tengo un hamster en mi casa!

- Itxoin momentu bat - gelatik atera eta liburu lodi bat ekarri zuen psikologak, bertatik, orduan, sagu bat atera zen.

-Hau Mintx da, eta liburu eta liburutegietako lagunik hoberena da, horrez gainera, euskaraz hitz egingo dizue.

Hura bai harrigarria!

- Hala, ze polita.

- Buau, ikusgarria.

-Ostra,nik euskaraz hitz egingo dut hemendik aurrera!

Beraz, handik aurrera, ume guztiek euskaraz irakurri eta hitz egin zuten. Hala eta guztiz ere, Mintx Irunberrira etorri zen, oso gaixorik jarri zen-eta umeak ez zutelako irakurtzen, ezta euskaraz hitz egiten ere. Sagu zintzoak, opariak eta guzti banatu zituen ikasleen artean, baina ez zuen ezer lortu.